

Gradu bukaerako Lana (GRAL)

Historia

-2018ko maiatza-

**Cabacas Liceranzu sendia eta semearen ustekabeko heriotza.**

**Amaitu gabeko oroimen historia bat.**



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Asier Ortiz de Ginea Iñiguez de Ziriano

# Aurkibidea

<b>0. Sar hitza</b> .....	4
<b>1. Memoria eta historia solasean</b> .....	5
1. 1. Testuingurua: konplexua bezain erabakiorra.....	5
1. 2. Mintzakide biak aurrez aurre.....	6
1. 3. Ezaugarrituko al dugu memoria?.....	8
1.4. Zer, zergatik eta zertarako gogoratu?.....	9
1.5. “ <i>Mnemohistoria</i> ”, historiaren adar berritzailea.....	10
<b>2. Kasu azterketa: Iñigo Cabacas Liceranzuren heriotza</b> .....	11
<b>3. Cabacas Liceranzu sendia: oroimenaren historia</b> .....	12
3. 1. Abiaburua.....	13
3. 2. Cabacas- Liceranzu sendiaren ezaugarriak definitzen:.....	15
<b>4. Eraldaketa- uneak eta eragileak</b> .....	16
4.1. 2012ko apirileko egunak: oroimenaren hastapena.....	17
4.2. 2012ko ondorengo hilabeteak.....	20
4.3. Ertzaintzaren komunikazioak eta Eusko legebiltzarreko ikerketa batzordea.....	22
4.4. Oroimenaren “amaiera”: 6. urteurrena eta epaiketaren data.....	25
<b>5. Azken hitzak</b> .....	25
<b>6. Bibliografia</b> .....	29
<b>7. Iturriak</b> .....	30

## 0. Sar hitza.

Segidan dakarguna *Mnemohistoria* motako kasu bat da. Oroimenaren historia izango dugu aztergai, beraz, ondoko lerroetan. Soziologiaren diziplinan memoria Maurice Halbwach-ek zedarritu bazuen ere, korrante historiografiko berrizat har genezake berau, eta abiapuntua Jan Assmann historiagilearen obran kokatu. Egiptorekikoetan aditu dugun arkeologo germaniarrak oroimenaren funtzioaren gaineko ariketa egin zuen. Hari horretatik tiraka, *oroimen kulturalaren* teoriara iritsi zen, eta korapilo nagusia argizatzen saiatu; hots, oroitzapenak gertakizun historikoa ordezkatzeko duen dinamika- ahalmena.

Diogunez, beraz, oroimena dugu ikergai. Haren historiaren lan bat egin nahi dugu, beti ere kasu azterketa bati lotua. Horretarako, labur bada ere, lan honen lehen ataletan memoriaz eta historiak arituko gara: norbera zein den, elkarren arteko zein harreman duten eta haiengan testuinguruaren eraginik baden ikusiko dugu. Ondoren, memoriak zeintzuk ezaugarri dituen identifikatuko dugu eta aipatu dugun funtzio edota xedea argizatzen ahaleginduko gara. Azkenik, gure lanaren funtsa den *mnemohistoria* kokatuko dugu.

Arestikoak oinarri harturik, lanaren bigarren zatian aipatu kasu azterketari helduko diogu, nolabait *gertuko historian* koka dezakeguna. 2012ko apirilean jazo zen heriotz bat, inork gutxik espero ez zuena. Futbol partidu baten osteko ospakizunetan hil zen Iñigo Cabacas Liceranzu gazte basauriarra, dirudienez Ertzaintzaren karga bateko pilotakada baten ondorioz. Bada, gertakizun traumatiko horrexek biktimaren gurasoengan eragindako oroimenari helduko diogu. Denbora epe ezberdinetan euskal administrazioaren gorabeherekin loturikoek haiengan sorrarazitako memoria motari eta eraldaketei so egingo diegu. Beraz, une desberdinetako aldakuntzek norabidetu duten gurasoen memoriaren historia ekartzen saiatuko gara segidako lerroetan.

XXI. mendearen laurdena betetzeko 3 urte falta zirela, lehen unetik *mass media* direlakoan azal eta editorialetara egin zuen jauzi Cabacasen heriotzaren auziak. Ukaezina da hedabideetan izandako oihartzuna. Hortaz, batetik, kazetaritza iturriak hartuko ditugu aintzat. Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzaren euskarri zenbaiten erabilera ere egingo dugu, eskuartean dugun auzian nahitaezkoztat jotzen ditugula-eta. Horiekin batera, urte hauetako instrukzio judizialean kaleraturiko zenbait auto baliatuko ditugu. Hirugarrenik, sendiak han- hemenka esandakoak ere aintzat hartuko ditugu.

Azkenik, horiez guztiez gain, 2018ko maiatzean gurasoekin beraiekin egindako aurrez aurreko elkarrizketan esandakoekin ere borobilduko dugu iturri sorta.

## 1. Memoria eta historia solasean.

Bien arteko elkarrizketak badu, izan, momentu historiko jakin bat, zirkunstantzien inguruabar bat alegia. Denbora historikoaren abagune zehatz horrek mota askoko hainbat aldagairi erantzun ohi dio, eta ondorioz, solasaren tentsioak gora edo behera egin dezake. Zedarrituriko abiaburu bat dugu, beraz. Usu, aldagai erabakitzailena izaten da, esango dugunez.

Bestalde, historia eta memoria, solasaren parte-hartzaileak, ezberdindu beharrean gara. Maiz biak nahasteko gurari edota inertziak tarteko, iraganaren gaineko interpretazio eta errealitatearen eraikuntza okerrak izaten dira, desbideraketak alegia.

### 1.1. Testuingurua: konplexua bezain erabakiorra.

Historia eta memoria elkarreraginean diren dimentsio ezberdineko bi kategoria ditugu. Langai bera dute, iragana (Escudero, 2011: 15). Nolabaiteko binomioak itxura ugari har dezake: elkarren osagarri, bata bestearen aurkari, *inpass* egoera, atzera ere lehian... Une historiko bakoitzak noarabidetzen du bien arteko hartu-eman, hala ere. Horren adierazgarri dugu, esate baterako, Yerushalmi historiagilearen ondorengo aipua:

*“En el mundo que hoy habitamos, ya no se trata de una cuestión de decadencia de la memoria colectiva y de declinación de la conciencia del pasado, sino de la violación brutal de lo que la memoria puede todavía conservar; de la mentira deliberada por deformación de fuentes y archivos, de la invención de pasados recompuestos y míticos al servicio de los poderes y las tinieblas (...) El historiador solo, animado por la austera pasión de los hechos, de las pruebas, de los hechos, de los testimonios, que son los alimentos de su oficio, puede velar y montar guardia”* (Yerushalmi, 1989: 25)

Uneko testuinguru historikoa zehatza eta konplexua izaten da oso, eta era berean, erabakiorra (Novick, 1999: 27). Momentuko abaguneek determinatzen dute gertakizun historikoa bera batetik,

eta ondorengo ikerketaren nolakotasuna bestetik. Ondoren etorriko lirateke kontakizuna eta transmisioa osatzeko era(k) eta ikuspegia(k), memoria(k) hain zuzen, berau(ek) ere momentu historikoek baldintzatua(k). Denboraren joanarekin batera sortzen doazen eraikuntza ezberdinez mintzo delarik, Jelin adituaren aipuak zinez interesgarria dirudi: *“Porque la “misma” historia, la “misma” verdad, cobra sentidos diversos en contextos diferentes. Y la sucesión de cohortes o generaciones implica, irremediabilmente, la creación de nuevos contextos”* (Jelin, 2002:126)

Beraz, prozesu historikoen hausnarketa, zergatik eta nola gertatzen diren batetik, eta beren ondorioen tamaina bestetik, ez dugu linealtzat hartzerik. Unean uneko inguruabarra aldakorra da eta denboraldi bakoitzari ulergarritasunerako marko propioa dagokio. Areago, bistan da historiagilea ere espazio eta denbora zehatzean diharduela ikerketa unean.

Honenbestez, egi historikoaren bilaketa uste baino prozesu korapilatsuagoa dela esan beharrea gaude. Primo Levi-k, batetik, dioskunez *“La mayor parte de los fenómenos históricos y naturales no son simples, o no son simples con la simplicidad que quisiéramos”* (Levi, 1989: 34), eta Jelinek, bestetik, *“Multiplicidad de tiempos, multiplicidad de sentidos, y la constante transformación de y cambio en actores y procesos históricos, estas son algunas de las dimensiones de la complejidad”* (Jelin, 2002: 13)

## 1. 2. Mintzakide biak aurrez aurre.

Egia izan den modukoa aztertzen duen zientziaren ideia (*historizismoa*) alboratu eta identitatearen zein subjektibitatearen inguruko lanek hazkundera bizi izan duten neurrian, memoriaren interpretazioa ikerketa- lanen arduren erdigunean kokatu dela diote han- hemenka (Altonaga & Aranguren & Rincon, 2017: 138). Oroimenaren goraldi- une horretantxe<sup>1</sup> korapilatu da, beraz, historiarekiko izan beharreko harremana. Honela, *subjektibitateak* (memoria) zenbait arazo eta galdera mahaigaineratu dizkio *objektibotasunari* (historiari).

Huysen-en arabera, esaterako, XX. mendeko prozesu historiko erabat traumatikoek (bi Mundu Gerra, tartean) azken hamarkadeetan oroimenak mendebaldeko jendarteen kultura eta politika

---

<sup>1</sup> Aurreko mendeko azken hamarkadetatik biziagotzen joan den “memoria- denboraldia”-ren abiapuntua, garapena, kausak eta beste gai, lan honen xedeetatik at daude.

alorretara jauzi egitea ekarri dute (Huysen, 2002: 13). Jelinek ere egun pil-pilean diren iraganeko ikuspegi kritiko eta berreraiketa sakonetarako ahaleginak ikusirik, zera eransten du: *“En estas circunstancias, la transmisión de saberes y sentidos del pasado se torna una cuestión abierta y pública, objeto de luchas estratégicas y de “políticas de memoria”* (Jelin, 2002:124)

Bi-biak, historia eta memoria, iraganaren nolabaiteko irudikapenak dira, baina azaltzen saiatuko garenez, oso bestelako kontzeptuak ditugu. Batak ez du bestea gabe existitzerik, dena dela. Izan ere, historia egiteko memorizazioa behar da, eta dakigunez, nahitaez, historialariak oroimenarekin lotutako iturriekin egiten du lan (Flier & Lvovich, 2014: 18).

Jean- Michel Gaillard frantziarraren irudiko, memoriak historia egiten laguntzen du, baina ezin du ordezkatu. Oroimenaren iturria bestelakoekin alderatu behar da, kritikapean jarri alegia (Barret-Ducrocq, 2002: 35). Edonola, historiak gaietan eta espazioan zabaltzen du memoria, eta azken emaitza oroimena baino ez da. Maurice Halbwach-ek definitu zuen *oroimen historikoa*, non memoria eta historia batzen diren (Barret- Ducrocq, 2002: 28). Autore berarena, Halbwachena alegia, dugu ondorengo aipu argigarria: *“el recuerdo es, en una amplia medida, una reconstrucción del pasado con ayuda de datos tomados del presente (...) la memoria jamás es una restitución del pasado, sino una reconstrucción continuamente recomenzada del pasado, en función del presente”* (Halbwach, 1997:118-119) Candau-k memoria bizitzarekin batera dakusa, oroitzapenera nahiz ahanzturara irekia. Historiaren aurkaritzat du, antitesia nolabait. Historia, ordea, unibertsala da, eta denboran zeharreko jarraikortasunari nahiz bilakabideari atxikitzen zaio (Candau, 2006: 57).

Ikus dezakegunez, oroitu eta ahanztearen ekintzak ageri zaizkigu memoriaren berezko ezaugarri gisa. Ez dira, ordea, Yerushalmiren irudiko, aipatu jarduerok historiaren diziplinaren barruan sartzen. Izan ere, bere aburuz, arestian genion Halbwachen *oroimen historikoa* ez baita historiaren xedearen norabidea<sup>2</sup> (Yerushalmi, 1989: 25). Ildo horretan, argigarri zaigu Novicken ondorengo gogoeta:

*“La memoria colectiva simplifica; ve los acontecimientos desde una perspectiva única y comprometida: le impaciente cualquier cosa de ambigüedad; reduce los*

---

<sup>2</sup> 1989ko lanean 5 ahanztura- ideia aztertzen dira, hala nola transmisio etena, bizitza politikorako baldintza gisa, marko politikoen araberako elaborazio eza, lengoaiaren beharrezko dimentsio gisa eta garaiko kulturaren ezinezko ezaugarri moduan

*acontecimientos a arquetipos míticos. La conciencia histórica, por su propia naturaleza, se centra en la historicidad de los acontecimientos: en el hecho de que tuvieran lugar entonces y no ahora” (Novick, 1999: 16)*

Hari beretik, badira memoriaren izatezko bereizgarri gehiago, kritika eta aukeraketa, esaterako. Ricoeur-ek dioenez, memoriak kritika historikoan topatzen du justiziaren zentzua (Ricoeur, 2003: 650). Hautaketaren esparruan zera dio antropologo eta filosofo frantziarrak: *“El relato entraña por definición una dimensión selectiva (...) la memoria que se enuncia, haciéndose relato, se carga de interpretaciones inmanentes al relato”* (Ricoeur, 2003: 581). Historiak zientzia gisa berezkoa duen aukeratze- prozesuaren irizpideez, aldiz, Yerushalmik garbi dakusa: *“Eso no quiere decir que la historia no sea selectiva, sino más bien que sus principios de selección son internos a la disciplina: el estado alcanzado por la investigación, la coherencia de los argumentos, la estructura de la exposición”* (Yerushalmi, 1989: 23)

### **1.3. Ezaugarrituko al dugu memoria?**

Aurreko puntuan genionez, oroimenak zenbait bereizgarri ditu, haren eraikuntzaren uneko testuinguruaren eragina, ahantura nahiz hautaketaren beharra eta biltzen dituen kritikotasuna zein subjektibotasuna, besteak beste.

Bizi izandakoa gaur egunera ekartzeko dugun baliabidea da memoria. Bestela esanda, orainaldiak iraganaz egiten duen erabilpena. Nolabaiteko justifikazioa da, etenik gabe informazioa bereganatzen, eraldatzen, eta berrinterpretatzen duena. Horrez gain, oroitzen duenari buruzko baleko ezagutza orokorgarria ezinezkoa du memoriak, hots, kontzeptu orokorrik finkatzea ezinezkoa zaio (Escudero, 2011: 10). Marko akademikoetatik kanpo geratzen dela esan dezakegu, beraz.

Gizaki orok duen gaitasun dinamiko eta ekoizletzat har dezakegu oroimena. Sistema dinamikoa eta aldakorra. (Altonaga & Aranguren & Rincon, 2017: 138) Primo Levi-ren ondorengo aipuaren bidez ongi asko uler dezakegu denboran zeharreko aldakortasunaren ezaugarria:

*“La memoria humana es un instrumento maravilloso, pero falaz (...) Los recuerdos que en nosotros yacen no están grabados sobre piedra; no solo tienden a borrarse con los años, sino que, con frecuencia, se modifican o incluso aumentan literalmente, incorporando facetas extrañas. Lo saben muy bien los magistrados: casi nunca ocurre que dos testigos presenciales de un mismo hecho lo describan del mismo modo y con las mismas palabras, aunque el suceso sea reciente y ninguno de los dos tenga interés en deformarlo” (Levi, 1989: 21)*

Atzera- aurrerako prozesu horrek, bestalde, oroimenaren fidagarritasunaren ausia ere azalarazten digu. Maiz gogoratzeko prozesuak iragankorrak dira, eta hausturak daude. Saihestu ezinezko nolabaiteko ahanzturak. Horrela, gogoratzearen ariketa bera eta segidako garapena, aldakortzat ez ezik, ezegonkortzat ere jo dezakegu.

Hortaz, esan dugunez, memoriak irudikatu ez ezik, subjektibizatu ere egiten du. Funtsean, memoria tresna sinbolikoen bidezko ekintza- prozesu bat da<sup>3</sup>. Gogoratzeari nahiz ahanzteari dagokionez, eraikuntza aktibo eta hautakorra. Horregatik, giza oroimena mugatua da, eta are, inklusiboa ez dela baieztatzeko moduan gaude.

#### **1.4. Zer, zergatik eta zertarako gogoratu?**

Oroitu eta ahanzten duguna askotarikoa da: data esanguratsuak, gertakizun mota ugari, bizipen indibidual nahiz kolektibo franko... Horietako bakoitzak *marka* moduko bat uzten du gizaki eta jendartearengan, baina bere horretan orbain soil batek ez dakar memoriarik, Wiesel-ek dioenez: *“Pero la memoria no es solamente huella, sino también recuerdo de esas huellas. Muchos rastros de memoria se borran, se fragmentan. Eso es el olvido, en el cual interviene lo aleatorio. El olvido de un mismo hecho puede variar de una persona a otra”* (Barret- Ducrocq, 2002: 19).

Bestalde, erabateko memoriak jasanezina dirudi. Ezin dugu dena oroitu, den-dena kontatu ezin dugun bezala. Ezinezkoa da memoria guztiak asumitzea. Horiek horrela, galderak elkarren segidan datozkigu, errenkan: zeintzuk *marka* ahaztu eta zeintzuk gogoratu, zergatik, nola,... Jaques Le Goff adituak batetik, eta Elisabeth Jelinek bestetik, garbi dakusate oroimenaren erabileraren egitekoa.

---

<sup>3</sup> Subjektibitatearen eraikuntzan lengoia eta kultura aurrebaldintza gisa ageri dira (Jelin, 2002:35)



Lehenak dioenez, iraganari etorkizuna zabaltzea beharrezkoa da (Barret- Ducrocq, 2002: 64), eta bigarrenak etorkizuneko aurreikuspenekin lotzen du oroimenaren lana (Jelin, 2002: 121) Beraz, iraganaren gaineko kontaketa ezinbestekoa dugula iradokitzen digute bi-biek, eta etorkizunarekin loturik agertu.

Aurrez esan bezala, momentuko kontzientzia eta errealitate soziala etengabeko aldaketapean daude. Horren ondorioz bistan da memoriaren eraikuntza zein erabilpen oro orainak dituen kezken erantzunen norabidean ezaugarrituko direla. Unean uneko bulkada, eragin eta baldintzatzaile politiko eta sozial ukaezinak dauzka oroimenaren giza- praktikak, ondoriozta daitekeenez.

Bestalde, gogoratzea (eta ahaztea) bilakaera da, aipatu orainaren helburu zehatz bati baino gehiagori atxikirik joan litekeen eboluzioa. Orobat, ordea, oroitzeak funtzio argia du Elie Wiesel-en irudiko: *“Rememorar supone un esfuerzo en busca de sentido, una reconstrucción de significado, una evaluación interna de hipótesis, de procesos mentales portadores de sentido, pero encierra también el peligro de una desviación de sentido, lo que desafortunadamente sucede muy a menudo”* (Barret-Ducrocq, 2002: 19).

Hori hala, memoria mugatu jakin bat eraikitzea, eta ez beste bat, esanahiaren sorkuntzan koka daiteke. Nortasun jakin bati eusten dio oroimenak, eta haren eskutik doala esan genezake. Bien arteko lotura, hortaz, horren da estua ezen nortasunaren barne- krisietan oroimenaren berreraiketa bati ekiten zaion. Pollak aditua aipatuz Jelinek argitasun handiz dioenez: *“ Son los momentos en que puede haber una vuelta reflexiva sobre el pasado, reinterpretaciones y revisionismos, que siempre implica también cuestionar y redefinir la propia identidad grupal”* (Jelin, 2002: 26)

### **1.5. “Mnemohistoria”, historiaren adar berritzailea.**

Sarreran aipatu dugun ikerlari germaniarrak ikerketa historikorako berezko modua aletu du. *Mnemohistoria* historia zientziaren adar bat dela diosku, historia soziala edo ideien historia izan daitezkeen bezala (Assmann, 2003: 21). *Mnemohistoriak*, ordea, ez du zehazki iragana ikergaitzat, berau nola oroitzen den baizik. Eragile batzuk moldatzen dute oroitzapena, hark dioenez: tradizioak, etenak, jarraidurak...Iraganaren memoriak baditu baldintzatzaileak, hortaz (Assmann, 2003:21). Puntu honetan, garrantzitsua dirudigu Bruno Groppo autoreak dioenari erreparatzea. Oroimenaren

zikloez mintzo zaigu Frantziako Vichyko erregimena eta Argeliako gerratearen arteko alderaketa egiterakoan. Atera zituen ondorioetan irakur daitekeenez,

*“ la memoria de un acontecimiento tiene su propia historia y no se transmite de manera idéntica, sino transformándose continuamente y pasando por diferentes fases. Según la fase y el momento varían los aspectos que se encuentran en el trabajo de rememoración. Desde el punto de vista de la memoria, el pasado no es algo inmutable, sino una reconstrucción que se renueva sin cesar (...) Sin embargo estas reconstrucciones no son arbitrarias: se hacen en función del presente y de las preocupaciones del momento, porque la memoria es siempre tributaria del presente”*  
(Groppo, 2012: 19)

Funtsean, iraganaren eratze- prozesuak konplexuak eta aldakorak direla esan dugu aurrez, eta grabaturik geratzen dira zibilizazioen memoria kolektiboetan. Nola iltzatzen joan diren galde dezakegu orduan, eta oroimenaren historia genuke. Assmannek dioenez, *“este acceso mnemohistórico no trata solo del recuerdo de la historia, sino también y sobre todo de la historia del recuerdo (...) son los recuerdos como tales los que nos interesan”* (Assmann, 2005: 18)

## **2. Kasu azterketa: Iñigo Cabacas Liceranzuren heriotza.**

2012ko apirilaren 5eko gauean, Bilbon, Athletic eta Schalke 04 futbol taldeen arteko UEFA Europa Leagueko partidua izan zen. Norgehiagoka amaiturik, bi taldeetako futbolzaleak hiriko kaleetan zehar barreiatu ziren, tartean Iñigo Cabacas Liceranzu (Cabacas aurrerantzean) eta bere zenbait lagun. Maria Diaz de Haro, Rodriguez Arias eta Lizenciado Poza kaleetako elkarguneak plaza edota kalezulo itxura hartzen duen eremuan zeudela, Ertzaintzaren 3 furgoneta iritsi eta kargatzeari ekin zioten<sup>4</sup>. Gorputz polizialaren etorrera behartu zuen ustezko giro istilutsua baretu<sup>5</sup> eta jendea sakabanatzen hasi ziren<sup>6</sup>.

4 Txapelketa bereko aurreko partida batean Bilbon bertan jazotako istiluak zirela- eta, ohiko segurtasun neurriez gain, dispositibo zehatzago bat diseinatu zen. Arrisku handiagoko hiri-gunea bi sektoretan banatua zuen Ertzaintzak, horietako bakoitzean bete beharreko zenbait lanekin. Aipatu kaleetako elkargunea I. sektoreari zegokion.

5 Hain zuzen, kale inguru hartan zen giroaren tamaina da Cabacasen heriotzaren auziko nolabaiteko gakoa, hots, Ertzaintzaren furgonetak iritsi aurreko istiluen larritasun mailak ertzainen nolako esku-hartze mota eskatzen zuen egiaztatzea

6 Bilboko Instrukzioko 10 zk.ko epaitegia: aurretiazko eginbideak 1331/2012-G (Autoa: 2017/03/31)

Gaur egun arte ezagutu ezin izan den polizia autonomiko batek jaurtiriko pilotakada batek Iñigo Cabacas Liceranzu gaztearen burua jo zuen. Inpaktuaren ondorioz, Bilboko Basurtoko ospitaleko zainketa berezietako gelan hil ala biziko egoeran 4 egun eman eta gero, apirilaren 9an hil egin zen 28 urteko basauriarra.

### **3. Cabacas Liceranzu sendia: oroimenaren historia.**

Bat- bateko seme baten heriotzak memoria oso jakina eraten du. Bortxa jazokera hark aurreikusitako ezinezko heriotz bat eragin zuen, ustekabekoa. Hortaz, begi- bistakoa da sendiaren oroimen mota traumatikotzat har daitekeela.

Sendiaren memoriaren izaera eta eraketa aldatzen ote diren galdetuko diogu geure buruari, eta hein berean, gertakizun tragikoaren balizko berreraiketek zeri erantzuten dioten identifikatzen saiatuko gara. Finean, Cabacas Liceranzu sendiaren oroimenaren eraikuntza nolakoa izan den jakin nahi dugu. Gurasoen 6 urteko memoria *historizatuko* dugu, semearen heriotzaren dolutik gurasoek eraturako oroimenaren bilakaerari nahiz irudikapenari so egin eta aztertzea alegia. Izan ere, lanaren hasierako ataletan, besteren artean, oroimenaren izaera definitu eta ulermenerako baliagarri zaizkigun gako batzuk eman ditugu. Zeri erreparatu eta nola interpretatu, beraz, errazago egin dezakegulakoan gaude.

Cabacasek buruan pilotakada jaso zuen hastapeneko unetik azken urteurrenera arteko epealdia hartuko dugu kontuan. Denbora horretan zehar euskal administrazio publikoak eta harekin loturikoek Cabacasen heriotzaren gertaeraren gainean izandako eragina Cabacas Liceranzuren sendiaren memoriarekin uztartuko dugu.

Cabacas gaztearen heriotza espazio eta denbora oso zehatzetan jazo zen, nahiz eta gertakizunaren ulermena ez den nahi bezain erraza. Ondorengo argipen- prozesua alorrez alor eta unean- unean aldakorra izan da. Ikerketa judizialaren gorabeherek, gure lan honetatik at daudenak, zein administrazioaren jokabideak gurasoen oroimena ingurumari konplexuan eratzea eta garatzea ekarri dute. Aldakortasun konplexuak hezurmamituko du sendiaren oroimenaren historia, hortaz. Horiek

horrela, epealdi ezberdinetan semearen heriotza gurasoek nola oroitu duten argitzen ahaleginduko gara.

### 3. 1. Abiaturua.

Lanaren hasierako ataletan ikusi dugunez, ikerketa objektuari egoki heltzeko kontuan hartu beharreko lehen aldagaia testuingurua da. Eskuarki konplexua izaten da tragedia baten unean berau ze- nolakoa zen guztiz marraztu eta identifikatzea, argazki estatiko bat ez den heinean batetik, eta aldagai anitzek eragiten duten heinean bestetik. Halarik ere, ondorengo lerroetan zertzelada azpimarragarrienak aipatuko ditugu.

Euskal Herriko jendarteak “gatazka aro luzea” bizi izan du. Hamarkadetako bortizkeriak (tartean 40 urteko Frankismoa eta Trantsizio politiko gorabeheratsu bat) baldintzaturiko ingurune sozio-politiko konplexu xamarrean hazi eta hezi behar izan dute belaunaldi ezberdinek. Ezbairik gabe, edozeinen begietara mina eta sufrimendu dosi handiko garaiak izan dira. Bistan da gatazka giroak eta giza eskubideen urraketek jende askorengan orbain eta marka fisiko- psikiko sakonak utzi dituztela, baita oroimen marka ugari ere.

Horiek horrela, azken urteetan gatazkan parte hartzen zuten aktore batzuek zenbait urrats eman dituzte. Nabarmengarrienetako bat, paradigma aldaketa ekarri zuena, 2011ko urrian ETAk jardun armatua bertan behera betiko uzten zuela iragarri zueneko da. Horrexek eta beste hainbat aldagaik, lan honen xedeetatik kanpo daudenak, prozesu historiko bat bukatu eta berri baten trantsizioan gaudela iradokitzen digutelakoan gaude<sup>7</sup>.

Bestalde, 2012koa Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE) eta Alderdi Popularraren (PP) arteko gobernuaren azken urtea izan zen<sup>8</sup>. Eusko Jaurlaritzan aginte aldaketa gertatu bazen ere, Basauriko gaztearen heriotzaren ikerketa judizialak bide propioa izan du eta beste 6 urtez luzatu da. Denbora horretan guztian jendartearen eremu askotan (sozialean, politikoan eta hedabideetakoan, kasurako) Cabacasen auziak ukaezinezko gaurkotasuna izan du. EAE-ko Fiskaltzaren Memoria, ordena

7 Lana egiten ari ginela, ETA erakundearen desegitea eta bukaera jakin zen, 2018ko maiatzaren 3an hain zuzen (ETA, 2018ko maiatza)

8 2012ko urrian hauteskundeak izan ziren eta Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) irabazi zuen. Iñigo Urkullu Rementeria lehendakari zela abiatu zen EAE-ko X.Agintaldia. <https://www.euskadi.eus/web01-s/lezaleh/eu/> (Kontsultatua 2018/01/15 )

publikoarekin loturiko delituen atalean, esate baterako, honela mintzo zitzaigun 2014an: “*por su gavedad, enorme repercusión pública y características del hecho, destacamos el caso de Iñigo Cabacas*” (Fiskaltzaren Memoria, 2014: 31)

Ziurrenik ondorengo fase historikoak iraganari buruzko kontakizunaren (*errelatoa*) lehia ekarri ahal digu. Aztergai izango duguna Bilboko kale batean jazo zen, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Beraz, ez da sobera aipatzea Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 bitarteko Bake eta Bizikidetzaren planak jasota duena. Hots, *zoru etikoa* dela planaren erreferentzia, eta giza duintasuna kokatu behar dela beste edozein helbururen gainetik. Dokumentuak dioenez, aipatu *zorua* aurretiazko elkartzeko eremua da, eta iraganaren gaineko narratiba *kritiko* eta *konpartituan* indarkeriaren erabilera ez zilegitzea *irizpidea* (Bake eta Bizikidetzaren plana, 2013ko azaroa: 9)

Cabacas hil ei zuen Ertzaintzaren pilotakada hura arestian aipatu nolabaiteko trantsizio fasearen hasiera aldera izan zen. Dena dela, giroan izan zitekeen tentsioaren ispilua beste hiru datu aipatzeari funtsezkoa deritzogu: lehenik, Athletic eta Lokomotiv-eko zaleen arteko 2012ko otsaileko istiluak<sup>9</sup>; bigarrenik, Ertzaintzak zauritutako *El Mundo* egunkariko nahiz *Argazki Press*-eko bi langileen gertaera<sup>10</sup>; azkenik, Cabacasek pilotakada jaso zuen Athletic- Schalke 04 partidua *arrisku handikotzat* jo izana<sup>11</sup>

Lana egiten ari garen unean Cabacasen heriotza epairik ez duen kasua da. Esan bezala, 6 urteko instrukzio judizial gorabeheratsu bezain zail baten aurrean gaude<sup>12</sup>. Azkenik, ordea, bide judizialak laster amaiera izango duela dirudi. Izan ere, joan den martxoan jakin zen Cabacasen heriotzagatiko epaiketa datorren urriaren 15ean hasiko dela<sup>13</sup>

9 <http://www.elmundo.es/pais-vasco/2018/02/23/5a8fdd53468aeba10c8b45af.html> (Kontsultatua 2018-01-26)

10 <http://www.elmundo.es/elmundo/2012/02/07/paisvasco/1328646992.html> (Kontsultatua 2018-01-25)

11 Bilboko Instrukzioko 10 zk.ko epaitegia: aurretiazko eginbideak 1331/2012-G

12 2015eko Memorian EAE-ko Fiskaltzak honakoa zioen:

“...atzerapen hori parte batean ikerketaren zailtasunari zor zaio...” (Fiskaltzaren Memoria, 2015: 22)

13 <http://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/inigo-cabacas/oso/5438834/inigo-cabacasen-heriotzaren-epaiketa-urriaren-15ean-abiaturiko-dute/> (Kontsultatua 2018/03/15)

### 3. 2. Cabacas- Liceranzu sendiaren ezaugarriak definitzen:

Esan bezala, gure kasuan Josefina Liceranzu eta Manu Cabacas<sup>14</sup> dira ikerketa- objektu dugun oroimenaren sortzaile eta subjektu. Dakigunez, jendarte batean indibidua eta kolektiboaren arteko harremanaren tentsioa ebaztea ez da erraza, areago bat- batean eta gertatu zen moduko ezusteko hilketa bati buruz ari garenean. Zenbait lotura saihetsezinak dira, beraz, norbanakoa zein taldea kultura eta esangura- marko antzekoen parte diren heinean. Puntu honetan esan behar dugu, bien oroimenaren eraikuntzan garrantzia duela- eta, Cabacasen gurasoek ez zutela beren semearen heriotza eragin zuen pilotakadaren unea bertatik bertara bizi izan.

Heriotzaren ondoriozko hastapeneko ezinegona zela batetik, eta kasuaren argipenarekiko izan duten zuhurtzia eta erreparoa direla bestetik, 6 urtetan Cabacasen lagunak zein herri eragile anitzek<sup>15</sup> ere beren oroimena eraiki izan dute. Izan ere, iruditzen zaigunez, heriotzaren aurreko oroimena bizirik iraunaraztea ariketa positibotzat hartu zuten hastapenetik; ahanztura, ordea, negatibotzat. Lagun eta athleticzale basauriarraren heriotza ez zuten inola ere neutrotzat hartu. Dirudenez, ahanzturak Cabacasen heriotza ezaba zezakeen, eta ondorioz, errudunak desagerrarazi. Oroimen mota eta bilakaera horrekin estu loturik ager liteke gurasoena, baina gure lan honetatik at utzi dugu sendiarena ez den beste dena.

Zeintzuk dira, ba, hildako Cabacas gaztearen gurasoak? Landuko dugun memoria- subjektuari ezaugarri zenbait lotu ahal zaizkio, zehaztapenatarako baliagarriak zaizkigunak, noski. Adinaren gaia azpimarra daiteke, memoriaren eraikuntzaren norabidean eragina duen heinean. Bat gatoz, hortaz, Jelinekin, honakoa dioenean: “ *La edad, el momento de la vida en que suceden los acontecimientos, deja marcas específicas, porque afecta a condiciones de vida, experiencias y horizontes futuros*” (Jelin, 2002:119). Seme bakarraren ezusteko heriotzak helduaroaren amaieran harrapatu zituen gurasoak. Horrez gain, esan, Fina Liceranzu Zeberion (Bizkaia) jaioa dela, eta Manu Cabacas Olivenzan (Badajoz), nahiz eta 14 urterekin Zornotzara etorri eta, semeak lehen urtea betetzerakoan, Bilbora lekualdatu. Bestalde, haien lan jardunari dagokionez, esan, amak etxeko lanetara zein semearen heziketara bideratu duela bizitza. Aitak, ordea, taberna baten

---

14 Lehen mailako senideak diren heinean hildako gaztearen gurasoak baino ez ditugu sendizat hartuko

15 San Mames futbol zelai berrian *Iñigo Cabacas* izeneko *herri harmaila dago* (<http://herriharmaila.blogspot.com.es/>), justizia eskatzeko *Iñigo Gogoan Herri Ekimena* jaio zen, *Jare* musika taldearen omenezko abestia (<https://www.youtube.com/watch?v=2v1bzpuYo3I>),...

negozioa zuen, semea larri zauriturik erori zen lekutik oso gertu. Semearen heriotzaz geroztik, haien egoera pertsonala guztiz iraulita, aitak ogibidea bertan behera utzi behar izan zuen<sup>16</sup>. Bi-biek diotenez, hilketak eragin handia izan zuen beren egoera psikologikoan, eta jendaurreko saltokia kudeatzea eramanezin bilakatu zitzairen<sup>17</sup>.

Aipatu gabe utzi ezin dugun beste datu bat Manu Cabacasen amaren heriotzarena da. Izan ere, aitaren amaren (Iñigo Cabacasen amama) heriotza Iñigo hila zela esan eta ondorengo egunean gertatu zen, EITB-ren *Por Fin es Viernes* telebista saioan Cabacas aitak onartzen duenez (PFV, 2014ko azaroa: 09:50 min). Bere irudiko, 2012ko apirileko pilotakada haren erruz ama eta semea galdu zituen.

Azkenik, Euskal Herrian azken hamarkadetan izan den bortizkeria politikoa nola bizi izan duten galdetzean, biek nahiko kanpotik izan dela esan digute. Amak gaztaroko klima soziala (lan arloko mobilizazioak, grebak...) aipatzen du, Gasteizko 1976ko martxoaren 3ko kasua esaterako, baina behin ezkondu eta semea edukita, kasik batere loturarik izan ez duela diosku. Aitak ezkerreko sentimendua izan duela dio, baina bizitza osoan jendaurreko lana eduki duela-eta, ez du inoiz inongo mugimendutan militatu, ez eta atxikimendu politikorik izan ere. Aitortu digunez, egun ere ez du.<sup>18</sup>

#### 4. Eraldaketa- uneak eta eragileak.

Cabacasen heriotza gertatu zeneko hasierako unea zaila eta gorabeheratsua izan zen oso. Futbol partidu baten ostean inork espero ez zuen bat- bateko heriotz traumatiko batek ohiko egunerokoa zapuztu zuen, ulertzekoa denez. Ustekabeko hilketak *nahigabeko* zuzeneko bi protagonista izan zituen: batetik Ertzaintza, eta bestetik, biktima izan zen 28 urteko gaztea. Horiekin batera, urte luzetan han- hemenka entzun ahal izan denez, beste aldagai bi ditugu, ezinbestean

---

16 Elkarrizketa, 2018ko maiatza: Egun Fina Liceranzuk 69 urte dauzka (1:28 min); Manu Cabacasek, berriz, 66 urte (3:25 min)

17 Gara egunkarian (2018-01-24) publikaturiko gutuna: “*Sr. Ugarteko, ¿le parece éticamente aceptable erigirse en víctima? A nosotros, no.*”

18 Elkarrizketa, 2018ko maiatza: Fina Liceranzu (08:47 min) eta Manu Cabacas (09:20 min)

aintzat hartu beharrekoak: buruko pilotakada izan zeneko kale eremua<sup>19</sup> eta karga behartu zuen *ustezko* giro iskanbilatsua.

#### 4.1. 2012ko apirileko egunak: oroimenaren hastapena.

Apirilaren 10ean, heriotzaren biharamunean, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburua zenak, Rodolfo Aresek (Ares aurrerantzean), Cabacasen hilketarekin loturiko istiluen gaineko lehen adierazpen publikoa egin zuen Erandioko ertzain-etxean. Bertan sendiaren min eta atsekabearekiko gertutasuna eta sentikortasuna adierazi zuen batetik, eta gau horretako *istilu larriak* ikertu eta argitzeko Eusko Jaurlaritzak eta berak zuten konpromiso irmoa agertu zuen bestetik, “*llegando hasta el fondo, cueste lo que cueste*” (Ares, 2012: 1:28 min). Horiez gain, sendiari ikerketaren bilakaeraren informazio guztia emateko prestutasuna azaldu zuen.

Agerraldi horren zatirik luzeena, ordea, apirilaren 4ko gaueko *giro iskanbilatsuaren* deskribapenari eta tamainari eskaini zien. Kale eremua *Kirruli* tabernara mugatu zuen eta SOS DEIAK-era eginiko 23:27ko deia azpimarratu zuen lehenik, zeinak, zaurituak zeudela-eta, laguntza eskatu omen baitzuen. Aresek zioenez, biolento talde bat hainbat pertsonari eraso egiten ari zitzaion, eta tartean bi zauritu zeuden. Kale- eremu horretara Ertzaintza bertaratzerakoan giroa oso liskartsua ei zen, tartean ertzainei jaurtiriko botilakadak “*ataque permanente realizado por muchas personas durante un tiempo mantenido*” (Ares, 2012: 15:15 min), eta patruila gehiagoren errefortzuak eskatu behar izan zituzten. Aresen irudiko, lehentasuna giroa baretu, eta zaurituengana iritsi ostean, haiek artatzea zen. Giroa, ordea, horren liskartsua zen, ezen ertzainek aurrez salba tiroak erabili baitzituzten; ondoren, ordea, gomazko pilotak. 23:41ean larrialdi zerbitzuetan beste dei bat jaso zen, odoletan zen konorterik gabeko pertsona bat lurrean zegoela ohartaraziz. Zauritu horixe Iñigo Cabacas zela argitu zuen Aresek jarrian, eta lehenengo deiko pertsona zaurituak ordurako hantxe ez zirela gehitu zuen, kale- eremu hartatik beren kaxa alde egin zutela-eta. Azkenik, behin giroa bareturik, *Kirruli* aurreko eremuan bertan topatu zituzten objektuen berri (izandako istiluen argipenerako ikertuko zituzten borra- luzagarri bat, botilak eta beste objektu asko) eman zuen Aresek apirilaren 10eko aipatu prentsa- aurrean. Horiez gain, komenigarria da aipatzea Aresek

---

19 *Kirruli* elkartearen kanpoaldean jazo zen. Berau Euskal Herrian tradizionalki *ezker abertzale* gisara ezagutu den familia politikoaren gune soziala da, eta jendartearen ahotan Herriko Taberna edo “*Herriko*” moduan aipatu izaten da



esandako beste hainbat aldagai: istiluen konplexutasuna (Ares, 2012: 7:21 min), objektuen agerpena dela-eta Ertzaintzak ezin zuela hipotesirik alboratu - ezta pilotakadarena ere- (Aresen agerraldia, 2012: 7:40 min), ordura arte forentseen autopsiarik ez zegoela (Ares, 2012: 7:50 min), Ertzaintzaren barne- ikerketa abian zela eta justiziarekin kolaboratuko zutela (Ares, 2012: 9:30 min)<sup>20</sup>

Apirilaren 11n, egun bat beranduago, Aresen Radio Euskadiko *Boulebard* irratsaioan elkarrizketa eskaini zuen. Bertan zioenez, haien semearen heriotzaren aurrean portaera erudugarria izaten ari ziren gurasoak, lagunaren ahotik gertakizuna ez politizatzeke (4:15 min) eskatzen ari zirela- eta, horri egoki irizten zion Barne Sailburuak. Zioenez, sendiaren berri bazuen, *“estoy seguro de saber como se encuentran”* (0:35 min) eta *“quiero reiterarle a la familia, que saben que estamos con ellos”* (11:54). Bestalde, autopsiaren emaitza aipatzen du, esanez, *“la autopsia ha confirmado que fue por el impacto de una pelota”* (1:35 min). Ertzaintzaren jardun protokoloez ere mintzo zen, eta honakoa gehitu: *“...es posible que haya existido alguna negligencia”* (4:30 min). Bertsio ofizial kontraesankorraren zein datu ofizial ezaren aurrean honakoa zioen: *“No podemos limitarnos a dar versión oficial de versión de testigos (...) tenemos que dar la información que nos facilita, que nos transmite, el conjunto de la Ertzaintza y sus mandos (...) la policía no puede descartar ninguna hipótesis”* (08:45 min). Azkenik, Ertzaintzaren prozedura nolakoa izan zen argitu behar zela zioen eta gertaera berreraikitzen saiatu *“...Hay que esclarecer definitivamente quién da la orden, cómo se actúa, a qué distancia...”* (09:35). Gainera, Cabacas gaztearen heriotzaren argipena amaieraraino iritsi behar zela zioen, *“pese a quién le pese”* (14:14 min)<sup>21</sup>

Cabacas hil eta 3 egunera, apirilaren 12an, Herrizaingo sailburuak eginiko hurrengo agerraldiaren testuan<sup>22</sup> honakoa irakur dezakegu:

*“...arduragabekeriaren edo zoritxarraren ondorioz jazo ote zen alde batera utzita, egia hauxe da: gure agenteetako batek jaurretako gomazko pilotakada baten ondoriozko zauri larriengatik galdu zuen Iñigok bizia, auzitegiko medikuaren txostenak baieztatu duen moduan (...) nire agintaldian ez dira istiluen aurkako materiala erabiltzeko gomendioak aldatu (...) nolana ere, horrelako gertaera larri bat gertatzen denean,*

20 [https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/9942-lehendakari-compromete-aclarar-hasta-ultimo-extremo-las-circunstancias-muerte-inigo-cabacas?criterio\\_id=1012759&track=1](https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/9942-lehendakari-compromete-aclarar-hasta-ultimo-extremo-las-circunstancias-muerte-inigo-cabacas?criterio_id=1012759&track=1) (kontsultatua 2018-02-12)

21 <http://www.eitb.eus/es/audios/detalle/865729/entrevista-rodolfo-ares-consejero-interior-gobierno-vasco/> (Kontsultatua 2018-02-25)

22 [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/2047/aresen\\_agerraldi\\_legebiltzarrean\\_2012\\_04\\_12a.pdf?1334658651](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/2047/aresen_agerraldi_legebiltzarrean_2012_04_12a.pdf?1334658651) (Kontsultatua 2018-02-27)

*errugabe baten heriotza dramatikoa gertatzen denean, argi dago zerbaitek huts egin duela*” (Ares, 2012: 2-3).

Era berean, Ertzaintzaren izaera integral, demokratiko eta profesionala zikintzen saiatzea ez zuela onartuko zioen Barne sailburuak. Sendiari barkamena eskatzearekin batera, ikerketa istiluen egunean bertan agindu zuela zioen, bai eta kasuaz arduratu behar zen epaileari informazio guztia emango ziotela esan ere. Bi egun lehenago ere hitzeman legez, Aresen gertaera larria argitzeko azken muturrera iritsiko zirela esan zuen, *kosta ahala costa* (Ares, 2012: 3)

Bestalde, prentsaurreko berean Ertzaintzaren buru zen Jose Antonio Varela datu zehatzagoak eman zituen: 1) *Erasoari* hiruna eskopeta zituzten hiru furgonetek egin zioten aurre (denak Bilboko ertzain- etxeokak), 2) lehenik, salba tiroekin erantzun zen, eta ondoren, gomazko pilotekin -Cabacas zauriturik izan zen lekutik 22 metrora eginikoak- 3) eskopetaren ahokoak hiru posizio ditu: suabea (S), erdikoa (M) eta bortitza (F) (Varela, 2012: 1). Horiez gain, zaurituak artatzeko asmoz, esku-hartze horren xede nagusia plaza edota kale- kantoira albait arinen iristea izan zela esan zuen Varela. Bukatzeko, aurreko hiru egunetan heriotzaren gertaeraren aurrean eutsitako hipotesi sorta aipatu (lesioaren kausa borra luzagailua, jaurtitako botila nahiz objektuak, esku- hartzea behartu zuen zaurituetako bat izatea edo gomazko pilota batengatik) eta arrazoitu zuen, medikuen informazio ezarekin lotuz (Varela, 2012: 3)

Ikusi dugunez, hilketaren gertakizunean protagonista zuzen eta nagusietako bat Ertzaintza izan zen. Bada, haren 4 sindikatu nagusiek (ERNE, ESAN, SIPE eta EUSPEL) apirilaren 13an ohar bateratua kaleratu zuten<sup>23</sup>. Bertan, Barne Herrizaingotik eginiko analisisan hutsuneak atzeman zituztela esatearekin, gaztearen heriotza zorigaitzat<sup>24</sup> hartu zuten. Era berean, haiekiko inolako akusaziorik ez zutela espero gehitu zuten, ordura arteko lan- araubideari atxiki zitzaiela azpimarratuz. Azkenik, Cabacas sendiari doluminak adierazi zizkioten.

Bestalde, gure ustez duen garrantziagatik, Iñigo Urkulluren (Urkullu aurrerantzean) aipuak ekarri behar ditugu lerro hauetara. EITB-ren apirilaren 16ko elkarrizketa batean<sup>25</sup> Euskadi Buru Batzarreko (EBB) orduko presidentea zen politikari jeltzaleak ere gertatutakoaren argipen osoa

23 [http://www.sipe.es/noticias/2012/Nota\\_conjunta\\_reunion\\_departamento\\_13-04-12.pdf](http://www.sipe.es/noticias/2012/Nota_conjunta_reunion_departamento_13-04-12.pdf) (Kontsultatua: 2018-03-01)

24 Zehazki gertakaria “fatalidad” gisa izendatzen dute aipatu 4 sindikatuek

25 [https://bizkai.eus/esp/participa\\_municipio\\_detalle\\_mas.php?id\\_contenido=29284&pagActual=3074](https://bizkai.eus/esp/participa_municipio_detalle_mas.php?id_contenido=29284&pagActual=3074) (Kontsultatua: 2018-03-12)

eskatu zuen. Zioenez, ikerketaren hari- mutur guztiei heldu eta gertakizuna argitu beharra zegoen. Izan ere, jendarteak jakin beharra zuen. Are, poliziaren indarraren erabilera moduaren gogoeta aipatzen zuen, ordurako euskal gizarteak bizi zuen testuingurua bestelakoa zela aditzera emanda.

Gorago esan dugunez, gurasoek ez zuten haien begiz pilotakadaren unea ikusi. Amak esan bezala, futbol partiduaren momentuan gurasoak Oviedon ziren eguna igarotzen. Iluntzean Laredora desplazatu ziren, eta bertan afaldu. Segidan dei bat jaso zuten Basurtoko ospitaletik, ahal bezain fite hara joateko erregutuz (Ama, 2018: 11:35 min). Gertaeraz galdetuta, Cabacasen amak inola ere ez zuela Ertzaintzaren aldetik halakorik espero diosku “ *cuando ocurrió lo de Iñigo a mi me cayó de sopetón*” (Ama, 2018: 09:03 min) (...) *no podía creer que la Ertzaina hubiera matado a mi hijo, cunado están para cuidarnos*” (Ama, 2018: 11:25 min). Aitak ere ezin izan zuela ulertu diosku. Sozialisten mendeku antzeko bat espero zuela dio “ *lo han demostrado con los GAL*” (Aita, 2018: 16:25 min), baina ez futbol partidu baten ostean, ez eta biktima bere semea izango zela ere (Aita, 2018: 14:34 min) Hurrengo puntuan aipatuko badugu ere, puntu honetan esan behar dugu semea hil eta biharamunean gurasoak Aresekin bildu zirela. Hitzordu hartan Aresek Ertzaintzaren barne-ikerketara sakon baterako eskaintza egiteaz gain, aurrera eramateko konpromisoa ere hartu egin zuen arduradun politikoak, baina aitak elkarrizketan garbi adierazi digu: “ *todavía estamos por ver que escribieron, porque no hicieron nada, la abrieron y la cerraron*” (Aita, 2018: 14:34 min)

#### 4.2. 2012ko ondorengo hilabeteak.

Heriotza izan eta geroko hilabeteetan, auziaren garapenarekin batera zenbait kontu aipagarri jazo ziren. Denak ekarri ezin baditugu ere (Ertzaintzaren barne ikerketa, bide judiziala, Aresen abuztuko dimisioa<sup>26</sup>...), gurasoen oroimenean eragile izandako euskal administrazioaren hiru adibide ekarri nahi ditugu lerroetara. Lehena, heriotzaren erantzulea ezagutzeko izan zitezkeen zailtasunen aurrean, euskal administrazioak sendiari eskaini egin omen zion kalte ordainaren ingurumarikoa da, uztaillekoa. Aresek guztiz ukatu egin zuen, baita horretarako baimena eman zuela ere, ustezko eskaintza horren esamesa publiko egin izana sendiaren abokatuaren (Jone Goirizelaia) asmo gaiztoari atxikiz<sup>27</sup>. Ika- mika horren bueltan, apirilaren 10ean (Cabacas hil ondorengo

26 Bere agurrean Cabacasen auzia sailburu gisa izan duen kasurik zailenetakoa izan zela aitortuz [http://www.irekia.eus/eu/news/12074-herrizaingo-sailburuak-iragarri-eusko-jaurlaritza-utziko-duela?criterio\\_id=1016484&track=1](http://www.irekia.eus/eu/news/12074-herrizaingo-sailburuak-iragarri-eusko-jaurlaritza-utziko-duela?criterio_id=1016484&track=1) (Kontsultatua 2018-03-13)

27 <http://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/922156/cabacas-ares-niega-ofrecieran-indemnizacion-familia-cabacas/> (Kontsultatua 2018-03-02)

egunean), sendiaren abokatuaren bulegoan gurasoak, haien abokatua, hildakoaren zenbait lagun eta Ares bera bilera pribatu batean batu zirela ere filtratu zen.

Data haietan gurasoek bi prentsa-ohar egin zituzten publiko: bata, haien izenean, eta bestea, abokatuarekin batera. Gurasoen izenekoan, besteren artean, honakoa esaten diote Aresi: *“su única intención es desviar la atención de lo realmente sucedido, dando titulares a la prensa y pretendiendo que ello sirva para no dar explicaciones ni asumir sus responsabilidades (...) Seguimos buscando la verdad y la justicia y esperamos que en el futuro el Sr. Ares actúe en el mismo sentido”*<sup>28</sup>. Egin dugun elkarrizketan amak dioenez, Aresen ukatu zuen ustezko diru eskaintza hark honakoa sortzen dio berari: *“ te hace ver los malos que son, lo mal que estan actuando (...) y lo segundo es que no se tenían que haber atrevido a ofrecernos ese dinero, humillación tras humillación* (Ama, 2018: 13:55 min).

Bigarrena, Eusko Legebiltzarraren goi mandataria den Arartekoak<sup>29</sup> azaroaren 30ean kaleraturiko ebazpena, non batetik Ertzaintzaren esku- hartzea (pilotakaden jaurtiketa- distantzia eta gogortasuna) ezbaian jartzen duen, eta, bestetik, Barne Sailaren barne- ikerketaren prozedura ezegokitzat jotzen duen, ez baitzaio 7/2011 Gomendio Orokorrari egokitzen<sup>30</sup>. Eta hirugarrena, testuinguruan azpimarratu dugun bezala, Eusko Jaurlaritzaren gobernu aldaketa dugu. Eusko Alderdi Jeltzalea 2012ko urte amaierarako hasi zen agintzen. Semearen heriotzari begiratzeko unean, amak honakoa diosku: *“ Yo en un principio pensé que el PNV iba a actuar de otra forma distinta, porque antes de ser las elecciones ya estuvieron Ortuzar, ya hubieron algunos gestos (...) la Estefania Beltran de Heredia nada, reunirnos con nosotros (...) que no podía dar ningún audio, ningún bideo (...) con decirte que está en el juzgado lo tienen todo arrelado, eso nos hacía mucho daño”* (Ama, 2018: 15:50) Aitak, ordea, Barne Sailburu berriak, Estefania Beltran de Herediak, *lagundu* nahi zuela dio, baina *hanka eta eskuetatik lotuta* egon zela gehitzen du (Aita, 2018: 18:40). Gainera, berarekin eta Jonan Fernandezekin (Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusia) eginiko bilera batean azken horrek eginiko aipua azpimarratzen du aitak *“ que no creyera yo que todas las viudas de los ertzainas habían conseguido saber quién le había matado a su marido, eta berak honakoa erantzun ziola diosku “ que tiene que ver eso con la muerte de Iñigo”*

28 Nota de prensa familia Iñigo Cabacas Liceranzu (pdf)

29 Euskal administrazioaren jardura okerrak aztertzen dituen herriaren defendatzailea da. Hala dela erabakiz gero, dagokion arduradunari jokabidea zuzentzeko eskatzen dio ebazpen baten bidez (<http://www.ararteko.net>, kontsultatua 2018-02-29)

30 [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/3\\_2934\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/3_2934_3.pdf) (Kontsultatua 2018-03-01)

(Aita, 2018: 20:23 min). 2013ko maiatzeko Eusko legebiltzarreko agerraldi batean<sup>31</sup> isiltasun balizko itun batez mintzo zen aita, Aresen gobernuarekiko ERNE sindikatuak ustez egin zuena, auzia bere horretan uzteko xedez. Hitzartzearen une batean, Eusko Jaurlaritzaren gobernu berriko Barne Sailburua (Estefania Beltran de Heredia) aipatzen du. Zioenez, auzia argitzeko egon zitekeen ahaleginaren aurrean, greba mehatxua mahai-gaineratu ziotela entzuten omen zen (Manu, 2013ko maiatza: 7:35)

Bestalde, interesekoa deritzogu semearen heriotza eragin zuen gertakariarekiko oroimenaren eraikuntza nondik hasi zen argitzeari. Gertakaria bertatik bertara ikusi ez zutela-eta, sendiaren memoria hildako semearen lagunek zein lekukoek emaniko testigantzetatik hasi zen, nahiz eta amak aitortzen duen lagunek zuhurtziaz jokatu izan dutela beti: *“los amigos de Iñigo han sido chaupeau, porque han sido muy prudentes y jamás nos han contado nada (...) solamente lo que oías esporádicamente por ahí de cómo había ocurrido”* (Ama, 2018: 27:45 min).

Gurasoek oroimena egiteko euskarri lausoa baino ez omen zuten, beraz. Semea hil eta sei hilabetera, 2012ko urriaren 9an, aitak Gara egunkarian eskaini zuen elkarrizketan amak dioenarekiko kontraesanean egon litekeen adierazpena egin zuen<sup>32</sup>: *“ la policia estaba muy nerviosa (...) porque en partidos anteriores se habían producido incidentes y mandaron a los amateurs (...) ese día, precisamente fue uno de los que no pasó nada. Lo dicen los testigos y los amigos de mi hijo: que si no aparecen, no pasa nada de nada”*

#### **4.3. Ertzaintzaren komunikazioak eta Eusko legebiltzarreko ikerketa batzordea.**

Hilketa gertatu eta urtebetera, auziaren gainean inpaktu gehien izan duen elementuarekin egiten dugu topo. Izan ere, 2013ko apirilaren 15ean Ertzaintzak Cabacas larri zauritu zueneko poliziaren barne komunikazioak azaleratu zituen *Naiz* hedabide digitalak. Oihartzun handia izan zuten, eta jarraian ikusiko dugunez, gurasoen oroimenaren historian erabakigarriak, guk uste. Batetik, 5 minutu pasatxoko audioan *Ugarteko* goitizeneko Deustuko ertzain-etxeko buruak gau hartan emandako agindu zenbait jasotzen dira. Bestetik, kalean ziren zenbait furgonetetako mandoenak. Ertzainen karga ezberdinen hotsak entzuten diren bitartean, une horren egoera zein den

31 Sendiak alor politikoan Ikerketa Batzordea sor zedin nahi zuen, bertan auziaren ardura politikoak argitu eta ondoriozko neurriak har zitezen

32 <https://gara.naiz.eus/paperezkoa/20121009/366257/es/Creo-que-buscan-mas-tiempo-para-manipular-pruebas?Hizk=en> (Kontsultatua: 2018-03-01)

zehazten ahalegintzen dira ertzainen bi aldeak<sup>33</sup>. Kale kantoiarenean bueltan pertsonen arteko liskarretan zaurituak izan direnen gaineko dei bat ere, ertzain eta zibil baten artekoa berau, entzun daiteke...Edonola ere, aurretiaz beste agindu batzuk eman arren, zeresan gehien eman duena grabazioen 4. minutuan *Ugartekok* ematen duena da<sup>34</sup> : *”Le repito las órdenes para que queden bien claras (...) Entren al callejón con todo lo que tenemos, entren a la herriko (...) Y entonces estará la situación controlada”*<sup>35</sup>. Publiko egin ziren grabazio horiez galdetzerakoan, aitak gurekin eginiko elkarrizketan honakoa deklaritzen du:

*“No suelo querer pensarlo porque me da estupor, ganas de vomitar, me rasga todas la entrañas oyendo y pensando (...) cuando pienso y he oído, no puedo, no puedo (...) esa forma de mandar entrar ahí cuando estaban diciendo que no pasaba nada y que insiste el elemento tal en cuestión (Ugarteko ezizeneko ertzain- burua) de esa forma, no puedes más que rasgarte todas las entrañas y odiar, y querer marcharte ahora mismo de este mundo (...) era un día que él era feliz (semea) que no tenía que ir al bar (aitari laguntzeko), yo me había ido, yo había cerrado por si había incidentes (...) Odio, mucho odio, porque estoy yo lo había oído y lo entendía en la policía, ¿pero en la Ertzaintza?”* (Aita, 2018: 24:50)

Oroimenaren eraikuntzan eragile funtsezkotzat jo ditzakegun barne komunikazioen filtraziotik gutxira, urte bereko maiatzeko Eusko Legebiltzarreko Ikerketa Batzordearen eraketarako agerraldian<sup>36</sup>, aitaren ustetan Ertzaintzaren asmoa zein zen argiago omen zegoen: *“ que hubo mala azaña, se emplearon con una desproporción, y una mala intención ya preconcebida cuando fueron allí”* (Manu, 2013ko maiatza: 00:43). Aurrerago, Laia Caballer izeneko lekukoaren testigantza entzun ostean, Manu Cabacasek honakoa gehitzen du:

33 Instrukzio fasean *Ugartekok* eginiko adierazpen batzuetan kexu azaldu zen gau horretan 3389 identifikazio zbkia zuen mandoaren gainean. Bere ustez ertzain horrek ez zuen profesionaltasunez jokatu, furgonetatik jaitsi ez zela eta batetik, eta mando bati dagokion arduraz ez zuelako jokatu bestetik

<http://www.deia.eus/2015/10/25/politica/euskadi/la-clave-de-un-video-en-una-instruccion-sin-avances-caso-cabacas-el-oficial-que-se-inhibio> (Kontsultatua 2018-03-15)

34 2014ko apirilaren 28ko autoan Bilboko 10. Zbkiko Instrukzio epaitegiak *Ugarteko* ezizeneko ertzainaren inputazioa ukatu zuen, agindu horixe eta pilotaren inpaktua deslotuz (Bilboko lehen auzialdiko 13. Zbkiko epaitegia: 41/2018 epaia, 2018/02/09)

35 <https://www.naiz.eus/eu/mediateca/video/comunicaciones-de-la-ertzaintza-en-la-noche-del-5-iv-2012> (Kontsultatua 2018-01-12)

36 [http://www.legebiltzara.eus/portal/web/eusko-legebiltzara/videos/-/reproducir/vid?streamstandard=sd4:3&streamlegealdia=10&streamorganoa=01&streamdata=20130503&streamname=2013050301\\_01&streamdbstart=01:25:34.5&streamdbend=01:38:48.3&streamtranslated=false](http://www.legebiltzara.eus/portal/web/eusko-legebiltzara/videos/-/reproducir/vid?streamstandard=sd4:3&streamlegealdia=10&streamorganoa=01&streamdata=20130503&streamname=2013050301_01&streamdbstart=01:25:34.5&streamdbend=01:38:48.3&streamtranslated=false) (Kontsultatua 2018-02-27)

*“la barbaridad innecesaria que allí hicieron aquel día...en el momento más inoportuno, porque además ETA había dejado las armas, había hecho la tregua, kale borroka no había, a que vino esa barbaridad, o sea, odio acumulado, era un odio que se traía y lo desahogaron ahí (...), pero además, allí va gente de todo tipo, no solamente de la izquierda abertzale, (...) era un partido de fútbol”* (Manu, 2013ko maiatza: 12:50)

Bestetik, Fina emazteak eginiko hitzartzean honakoa dio:

*“yo ese día lo veo como una barbarie, se te abre el suelo (...) yo os quiero decir que a mi hijo lo mataron a 5 metros, mi hijo estaba de espaldas a la ertzaina, mi hijo le dieron por detrás (...) además os digo que a mi hijo le mataron con alevosía, predemitación y nocturnidad, porque pasaron los hechos, eso estaba mandado, que tenían que entrar a saco (...) yo no se quién estaba en la caja de llaves de las luces, todo Maria Diaz de Haro, toda la zona del herriko quedara a oscuras, no entra dentro de mi que la gente tuvieran preparado hasta eso (...) aquello quedó como la boca del lobo”* (Fina, 2013ko maiatza: 02:00)

Hilabete batzuk igaro eta gero, azaroaren 21ean, Eusko Legebiltzarrak atea itxi zion Ikerketa batzorde horren osaketari<sup>37</sup>, eta hari erantzunez gutun publikoa kaleratu zuten gurasoek, semearen heriotzaren inguruan, besteren artean, honakoak esanez: *“lo sucedido es, a nuestro juicio, consecuencia de sus actitudes, de sus decisiones, e incluso de su indiferencia ante hechos similares”*<sup>38</sup> Gurekin egindako elkarrizketan biktimekiko dagoen ikuspegi bikoitza azpimarratu dute: *“ las dobles varas de medir que hay”*<sup>39</sup>, *que si hubiera sido Iñigo el ertzaina, se hubieran hecho homenajes, nos hubieran dado todas las facilidades, hubieran detenido al asesino en ese momento”* (Aita, 2018: 33:35)

37 Eusko legebiltzarra: Bilkura egunkaria, 54. Zbkia (pdf). 2013-11-21

38 Manu Cabacas eta Fina Liceranzuren sinadura daraman dokumentua: 2013ko azaroa

39 *“Retratos municipales de las vulneraciones del derecho a la vida en el caso vasco. Basauri: 1960-2010”* 2016ko Eusko Jaurjaritzaren dokumentuan Iñigo Cabacasen heriotza “argitasun nahikorik gabekoan artean” azaltzen da, eta honako azalpena ageri da 27. orrialdean:

*“...se trata del único caso luctuoso, registrado con posterioridad a esa fecha, que ha tenido un eco notorio en el debate mediático, político y parlamentario vasco. Se ha tenido en cuenta, así mismo, que los Ayuntamientos de Bilbao y Basauri lo vienen incluyendo en sus actos de memoria”*

#### 4.4. Oroimenaren “amaiera”: 6. urteurrena eta epaiketaren data.

Arestiko epealdiak aski adierazgarriak iruditzen zaizkigu sendiak eratu izan duen oroimenak jarraitu duen dinamika ondorioztatzeko. Hori horrela, beraz, guk azken unetzat jotzen dugun horretaz labur arituko gara puntu honetan.

Dakigunez, memoria ororen eraikuntzan urteurrenek inflexio- puntu gisara jokatu ohi dute. Halako uneak nolabaiteko *memoria berotzat* har litezkeelakoan gaude, eta hortaz, hildako gaztearen gurasoengan ere garrantzizkoak direla pentsa genezake. Arestian esan dugunez, aurtengo urrian emango zaio semearen heriotzagatiko epaiketari hasiera. Gurasoak data horretaz jakitun zirela izan zen azken oroimen urteurrena, pasa den 2018ko apirilaren 7an izan ere. Bada, datu horiexek mahai gainean daudela, gurasoen oroimenari loturikoak dira ondoko bi aipu esanguratsuak. Esan bezala, hedabideetan urte hauetan oihartzun handia izan du gazte basauriarraren heriotzak. Hori dela-eta, gurasoen zenbait oroitzapen dira honakoak. Esaterako, *El Correo*-ren apirilaren 8ko berrian halaxe irakurri dezakegu: “*seis años sin asumir responsabilidades, seis años, que, con su muerte, de alguna manera también nos mataron a nosotros para siempre. Nuestra vida nos es la misma, desde entonces vivimos para recordar y hacer justicia*”. Bestalde, *Deia* egunkarian gurasoek eragindako minaren aitortza ofiziala eskatu zutela jasotzen da, eta *Gara* egunkarian honako adierazpenak daude aitaren izenean: “*a pesar de los intentos por ocultarlo, todos sabemos la verdad de lo que hace seis años ocurrió en este callejón*”

#### 5. Azken hitzak.

Cabacas Liceranzu sendiari 2012ko apirilaren 5ean aurrez aurre bizi izan ez zuen ezusteko gertakari tamalgarriaren ondorioz hil zitzaion seme bakarra. Ikusi dugunez, Ertzaintzaren gau hartako pilotakada batek gurasoen oroitzapenaren historia eragin du, bukatu gabeko oroimenaren historia bat eragin ere. Izan ere, batetik, oraindik ez dela amaitu diogu, aurrerantzean auzitara atera litezkeen bestelako eragileek ere berrezaugarritu dezaketelako haien memoria, datorren urriko epaiketak, kasurako; bestetik, gu oroimen historia bat osatzen saiatu garelako, euskal administrazioaren jardunbidearekin soil- soilik uztartzen ahalegindu gara-eta. Edonola, azken hitz



hautan esan dezakegu Eusko Jaurlaritzaren bi gobernu ezberdinek auziarekiko izan duten kudeaketaren zenbait unek, besteak beste, sendiaren oroimena determinatu dutela.

Hasieran genionez, 2012ko apirileko testuingurua aurreko bortizkeria garaietakotik bestelakoa zen, Nabarmengarrienen artean, historikotzat jo daitekeena, ETAREN hamarkadetako indarkeria hilabete batzuk lehenago amaitua zen. Are, futbol partidu batean bueltan gazte baten heriotza gertatzeak ezinezkoa zirudien. Cabacas gaztearen gurasoek ere halaxe uste zutela ondorioztatu dugu. Hasierako egunetako min amaigabea gorabehera, semea zauritu zuteneko gertaerak harridura maila handia sorrarazi zien. Ikusi dugunez, hastapeneko egunetan ezin sinetsita zeuden, autore zenbaitek lanaren hasieran erabakigarritzat jotzen duten unean- uneko testuinguru horrexek, 2012ko apirilekoak, tamainako gertaera tragikorik jazoko zenik iradokitzen ez ziela-eta. Beraz, gurasoak semea hil zueneko gertakizuna oroitzeko hasiera- markoari sinesgogortasun horren gainean heldu ziotela esan dezakegu. Era berean, semea hil ondorengo egunetan Ares Barne Sailburuak gurasoei ustez emandako hitzak (gertaera argitu eta ardurak kitatzeari begirakoa) ez zuen haien irudiko ez epe laburrean, ezta ertainean ere, deus ekarri. Hori horrela, heriotzaren nahi gabea ezbaian jarri eta oroimena eraikitzen hasteko zimendua prest zegoela iruditzen zaigu.

Gurasoak dolu eta minaren minez baziren ere, hasiera- hasierako egun eta asteak igaro ziren. Pilotadaren unea bertatik bertara bizi izan zuten hildako semearen zenbait lagunak kontakizuna ba omen zuten gurasoek ordurako. Halarik ere, testigantza lausoak izango zirela dirudi, amak lagunak pilotakadaren uneaz deus gutxi kontatu dietela esan digu-eta. Aurreragoko hilabeteetan eremu ugarian kontu anitz jazo zen, Cabacasen heriotzak euskal jendartean edukitako oihartzun handia horren lekuko da. Guk, ordea, lerro hautara horietako hiru baino ez ditugu ekarri, gurasoen oroimenaren historiarako aski erabakigarriak iruditzen zaizkigula- eta. Batetik, egiaztatzerik izan ez dugun balizko kalte- ordainaren eskaintzak une hartan egiaren estalketarako amarru gisa ulertu zuten gurasoek, jazotakoaren gaineko egiaren peskizan ari ziren-eta. 6 urte beranduago, berriz, administrazioaren aldetiko gaiztakeriatzat nahiz umiliaziotzat dutela esan digute. Bigarrenik, Arartekoak Ertzaintzaren barne ikerketa ezegokitzat jo zueneko ebazpena dugu. Alor judicial eta administratiboa gurutzatzen dira une horretan, bigarrenak lehenari gaina hartuz, gurasoek esan digutenez. Ate haren itxierak oroimenaren historia baldintzatu zuelako tenorean gaudela baieztatu dezakegu. Gertaturikoa argitzeko bidean oztopotzat hartua, gurasoen oroimenaren eraikuntza aurkari batekiko lehian nolabait. Azkenik, 2012ko udazkeneko Eusko Jaurlaritzaren gobernu

aldaketa dugu. Horrela, lehengo hilabeteetan esparru publiko zein pribatuan gobernu berriko ordezkari zenbaitek eginiko adierazpenak hutsal bilakatzen ikusi bide zuten gurasoek. Areago, aldaketa hura gertatu eta urtebetera administrazio barneko balizko isiltasun itun batez mintzo zen aita. Hiru horiek horrela, sendiaren oroitzapena posizio zehatzago baterantz biratzen ari zela antzeman daiteke, beraz.

Esan dugunez, zedarritu dugun hurrengo epealdia gurasoen oroitzapenaren historiarako erabakigarriena dela uste dugu. 2013ko apirilean publiko eginiko Ertzaintzaren barne grabazioen audioak erabat determinatu du sendiaren oroimena. Hori gabe gurasoen oroitzapena bestelako bide batetik joango ote zen? Ez dugu jakiterik, baina Ugarteko ezizeneko ertzain- buruak esandakoak ( “ *Le repito las órdenes para que queden bien claras (...) Entren al callejón con todo lo que tenemos, entren a la herriko y entonces estará la situación controlada*”) gurasoengan berebiziko eragina izan zuela zalantza gutxi dugu. Uneko istiluak gorabehera, modu horretan *Herrikoaren* lekua aipatzeak Ertzaintzaren min egiteko asmoa argi erakusten du gurasoen esanetan. Puntu horretan uneko testuinguruaren aldaketari erreparatzen diote gurasoek, ordurako Euskal Herrian bortizkeria girorik ez zela esateko, 2013ko maiatzeko Eusko Legebiltzarreko agerraldian aitak iradoki bezala. Bide batez, urteak igarota guk eginiko elkarrizketan gurasoen oroitzapena gorrotoz zipriztintzen dela ikusi dugu. Ertzaintzaren barne komunikazioak ez ezik, handik hilabete batzuetara eratzen ahalegindutako Ikerketa Batzordearen porrotak ere gurasoen oroimenaren historian beste atal bat gehitu zuela iruditzen zaigu. Segidan kaleratu zuten gutun publikoan ordezkari politikoei axolagabekeria eta indarkeriaren biktimen mailakatzea leporatu zizkieten. Bi une haietan sendiaren oroimenaren historiak itzulezinezko norabide bakarra hartu zuela esan daitekeela uste dugu.

Abiada bizi nahiz norabide egonkorreko (noiz arte?) oroimen mota horren seinale aski garbia 6. urteurreneko ekitaldian dugu. Lanaren hasierako zatian autore zenbaiten baieztapenek proposaturikoa bete egiten delako iritzia dugu. Semea hil zueneko gertaeraz geroztik oroitzeko bizi direla adierazi zuten gurasoek. Zertarako oroitu hildako semearen marka? galde genezake, eta haiek ekitaldiko hitzartzean erantzun: *justizia egiten laguntzeko, oraineko kezkei erantzuna emateko* (epaiketa ostertzean, auzia ustez argituko delakoan dira), *oroitzapenari esangura emateko, ...*

2018ko apirilean Cabacas Liceranzu sendiak, 6 urte lehenago semea larri zauritu zeneko Bilboko kale kantoian bertan, gertatutakoaren egia jakin bazekitela ere adierazi zuen. Beraz, haiek azken

urte hauetan eratu izan duten oroimenaren historiak, zeina guztiz lotua baitoa doluak sorrarazitako emozioekin, badu bukaera...edo ez?

## 6. Bibliografía.

- Altonaga, B., Aranguren, M., Rincón, A., (2017), *Historiagintzaren ikuspegi berriak. Teoria eta praktika*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Assmann, J., (2003) *Moisés el egipcio*. Madril. Grupo ANAYA S.A.
- Assmann, J., (2005), *Egipto: Historia de un sentido*. Madril. Abada Editores. S.L.
- Barret-Ducrocq, F., (2002), *¿Por qué recordar?.* Bartzelona. Ediciones Granica S.A.
- Escudero, R., (2011), *Diccionario de memoria histórica. Conceptos contra el olvido*. Madril. Catarata
- Flier, P., Lvovich, D., (2014), *Los usos del olvido. Recorridos, dimensiones y nuevas preguntas*. Rosario. Prohistoria Ediciones
- Groppo, B., (2012), “Ciclos de la memoria”. *Tiempo Histórico* 4. Zbkia. 13-21. orr  
<http://bibliotecadigital.academia.cl/jspui/bitstream/123456789/1226/1/13-21.pdf>
- Halbwach, M., (1997), *La memoire collective*. Paris, Albin Michel.
- Huysen, A., (2002), *En busca del futuro perdido: cultura y memoria en tiempos de globalización*. Mexico, Fondo de Cultura Económica
- Jelin, E., (2002), *Los trabajos de la memoria*. Madril, Siglo XXI de España Editores, S.A.
- Levi, P., (1989), *Los hundidos y los salvados*, Bartzelona, Muchnik Editores, S.A.
- Novick, P., (1999), *Judios, ¿ vergüenza o victimismo? El Holocausto en la vida americana*. Madril. Marcial Pons. Ediciones de historia, S.A.

- Yerushalmi, Y.,H., (1989), *Usos del olvido: comunicaciones al Coloquio de Royaumont*. Buenos Aires. Nueva Visión.

## 7. Iturriak.

### \*Auto judizialak:

- Bilboko Instrukzioko 10 zk.ko epaitegia: aurretiazko eginbideak 1331/2012-G (Autoa: 2017/03/31)
- (Bilboko lehen auzialdiko 13. Zbkiko epaitegia: 41/2018 epaia, 2018/02/09)

### \*Egunkariak:

- 2018-04.-07: *Gara, Deia, El Correo*

### \*Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza:

- 2014ko Memoria
- 2015eko Memoria

### \*Ertzaintzaren sindikatuak

- [www.sipe.es](http://www.sipe.es)

### \*Eusko Jaurlaritza:

- [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)
- [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)
- [www.irekia.euskadi.eus](http://www.irekia.euskadi.eus)
- [www.legebiltzarra.eus](http://www.legebiltzarra.eus)
- Eusko legebiltzarra: Bilkura egunkaria, 54. Zbkia (2013-11-21)
- “ *Retratos municipales de las vulneraciones del derecho a la vida en el caso vasco. Basauri: 1960-2010*”

### \*Hedabideak (Internet):

- [www.eitb.eus](http://www.eitb.eus)
- [www.elmundo.es](http://www.elmundo.es)
- [www.naiz.eus](http://www.naiz.eus)

### \*Sendia: euskarriak

- *Gara* egunkarian (2018-01-24) publikaturiko gutuna: “*Sr. Ugarteko, ¿le parece éticamente aceptable erigirse en víctima? A nosotros, no.*”
- Manu Cabacas eta Fina Liceranzuren sinadura daraman dokumentua (pdf). 2013ko azaroa
- Elkarrizketa, 2018ko maiatza (grabazioa)